

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Lehenik eta behin, gure enpresaren kokapen industrial, Zarauzko Abendaño poligonoan izango da. Hau faktore desberdinengatik aukeratu egin dugu; alde batetik, ekoizpen baliabideak eskuragarriak dira hemen. Zarautz bezelako herri handi baten ondoan kokatuak gaudenez, eta Donostiarekin ondo komunikatuak gaudenez; esku-lana eskuragarria izango da. Beste aldetik, garraiobide egokiak ditugu inguruan. Aireportuei dagokionez, Donostiako aireportua kotxez 36 minutura daukagu eta Bilbokoa ordea, ordu bat. Beraz, hauei dagokionez ondo komunikatuak gaude. Aldi berean, autopista nazionalak eta autobiak baita ere oso eskuragarri ditugu.

Kokapen komertzialari dagokionez, denda bat dugu Donostiako Gros auzoan. Denda honetara etorriko dira gure bezeroak eta kotxearen modeloa izango dugu ikusgai. Leku aproposa iruditu zaigu, batetik bezeroen bertaratzea erraza delako; hau da, hiriaren zentrotik oso gertu dagoenez eta era berean oso ongi komunikatuta dagoenez, bezeroak dendara joatea oso erraza izango da. Horrez gain, denda beste denda batzuetatik gertu kokatuta dago eta oso ikusgarria da. Lokala izatearen kostua nahiko altua izan harren, errentagarria da, bezero asko gerturatzen baitira gure dendara.

Gure produktua saldu ondoren, bezeroentzat eskuratze prozesua errazagoa izan dadin, etxe-eramate zerbitzu bat eskaintzen dugu. Hori gastu gehigarri bat izango da, autoaz aparte, eta fabrikatik etxeetara eramatea ez denez batere merkea, kilometroko 10 euro kobratuko dizkiogu erosleari. Bestetik, zerbitzu hau ez erabiltzea erabakitzen badute, Zarauzko fabrikara joan beharko dute kotxearen bila.